



EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO GARAPENERAKO
POLITIKEN KOHERENTZIARAKO
ERREFERENTZIA ESPARRUA



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Gizateria, eta planetako bizitzaren jarraipena bera, gaur egun ezagutzen dugun moduan, egoera zail baten aurrean dago gaur egun.

Garapen Jasangarriaren Helburuen eta Agenda 2030aren onarpena dela-eta Nazio Batuek 2105eko irailean izenpetutako Adierazpenak dioenez:

“Garapen jasangarriak erronka handiei egin behar die aurre. Milaka milioi herritar pobrezian eta bizitza duinik gabe bizi dira oraindik. Desberdintasunak areagotzen ari dira, herrialdeen barruan zein herrialdeen artean. Desberdintasun ikaragarriak dauden aukerei, aberastasunari eta botereari dagokionez. Generoen arteko desberdintasuna funtsezko erronka da oraindik ere. Oso kezkarria da, halaber, langabezia, gazteena batez ere. Munduko osasun-arriskuek, hondamendi naturalen maiztasunaren eta intentsitatearen areagotzeak, gatazken areagotzeak, indarkeria bultzatzen duten muturreko jarrerak, terrorismoak, krisi humanitarioek eta behartutako desplazamenduek mehatxuan jarri dituzte azken hamarkadetan garapen-arloan lortutako aurrerapenetako asko. Halaber, baliabide naturalen agortzeak eta ingurumenaren degradazioaren ondorio negatiboak (desertifikazioa, lehortea, lurzorua degradazioa, ur gezaren urritasuna eta biodibertsitatearen galera barne) areagotu egin dituzte gizateriak aurre egin beharreko zailtasunak. Klima-aldaketa gure garaiko erronkarik handienetako bat da, eta haren ondorio kaltegarriak murriztu egiten dute herrialdeek garapen jasangarria lortzeko duten ahalmena (...) Gizarte askoren eta planetako euskarri biologikorako sistemen biziraupena arriskuan dago”.

Arazo zaharren iraupenaren eta beste arazo berri batzuen agerpenaren ondorioz, zalantza, ziurgabetasuna eta arriskuak (toki-mailan zein maila orokorrean) nagusi diren testuinguru batean bizi gara, eta munduko gobernu guztiek ekintza politikoaren alderdi batzuk berriz planteatu behar dituzte arazo horiei aurre egiteko. Edonola ere, arazoen eta mehatxuen norainokoa eta garrantzia gorabehera, gero eta zailtasun handiagoak daude haiei aurre egiteko, hain zuzen ere elkarrekin osatzen eta hazten diren bi fenomeno konplexuren ondorioz.

Alde batetik, bizi garen ekonomia globalizatuan elkarrekiko gero eta mendekotasun handiagoak sortzen dira eremu guztietan, eta horrek mugatu egiten du, egunez egun, tokiko, eskualdeko edo Estatuko administrazioek aurre egin beharreko erronka asko bereiz landu eta kudeatzeko duten ahalmena. Bestalde, gero eta zailagoa da erronka horien inguruko akordio orokorrak errazteko erreferentzia partekatuak ezartzea. Aitzitik, areagotzen ari dira kultura- eta erlijio-tirabirak, baliabide naturalen inguruko gatazkek eta giza eskubideen urraketak.



Aurrean dugun erronka politikoa eta kulturala da batez ere, teknologikoa baino askoz ere neurri handiagoan. Gizateriak pertsona guztiei bizitza duina ahalbidetzeko adina jakintza eta baliabide tekniko eta zientifiko ditu gaur egun. Gizakien bizitza gizarte-mailan eta maila ekologikoan efizientzia handiagoarekin eta pertsonen eskubideak errespetatuta antolatzeke beharrezkoa den ahalmen politikoa eta zibilizazio-adostasuna lortzeko ahalmena, ordea, ez dugu.

Esparru horretan, Garapenerako Politiken Koherentzia -hots, giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegia maila guztietako politika publikoen diseinuan, abiaraztean eta ebaluzioan txertatzea eta politika horien artean koordinatzea eta osatzea- funtsezko erronka da ekintza politikorako. Gure kasuan, Garapenerako Politiken Koherentzia Europako testuinguruan gauzatzen eta adierazten da. Testuinguru horretan, ekintza koherente eta itundu bat behar da maila anitzeko gobernantzaren erronkei aurre egiteko eta, era horretan, eremu guztiak eraginpean hartzen dituzten eta erakunde guztien (estatu azpikoak barne) ardura diren gai komun batzuei aurre egiteko.

Inguruabar horietan, Eusko Jaurlaritzak onartu du Garapenerako Politiken Koherentziak gobernu-ekintzarako oinarritzko erreferentzia izan behar duela, barneko garapen-estrategiei zein kanpoko ekintzari edo bi alderdien arteko loturari dagokienez. Hori dela-eta, Garapenerako Politiken Koherentziaren inguruko erreferentzia-esparru hau ezagutzera eman nahi dugu, politika publikoei buruzko gogoeta egitean eta politika horiek lantzean kontuan har dadin.



GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIAREN GARRANTZIA, ESANAHIA ETA NORAINOKOA

Garapenerako Politiken Koherentziaren nozioa Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen barruan sortu zen 1990eko hamarkadaren erdialdean, nazioarteko lankidetzaren eraginari eta garapen-prozesuei lotutako beste politika batzuekiko loturari buruzko eztabaida gero eta indar handiagoa hartzen ari zen garai batean.

Harrez geroztik, Garapenerako Politiken Koherentziaren ikuskera bilakatu egin da, eta gero eta garrantzi handiagoa hartu du, aurrean ditugun erronka berrien ondorioz. Gaur egun, etorkizuna arriskuan jartzen duten mehatxuek (indarkeriak, eskubideen urraketak, krisi ekologikoak, klima-aldaketak, ziurgabetasunak, kolokatasun ekonomikoak, desberdintasunak eta gizarte-kohesioaren galerak, genero-ekitaterik ezak, kultura- eta erlijio-tirabirek eta abar) dakarten egoeran, ekintza publikoaren kalitateak eta eraginkortasunak garrantzi berezia dute.

Aurrean ditugun erronkak hain handiak dira, ezein lurralde ez da haietatik kanpo geratzen. Ezta ezein administrazio publiko ere, maila edozein izanik ere. Dena dela, aurre egin beharreko fenomenoaren arteko lotura eta mendekotasuna dela-eta, politikaren espezializazio sektoriala koherentziaren ikuspegitik aztertu behar da berriz, neurri batean.

Gaur egun, ezin da logika kontrajarririk bultzatu lurralde bakoitzaren berezko arazoei eta gizarte guztietan komunak diren arazo orokorrei aurre egiteko. Elkarren arteko mendekotasuna nagusi den testuinguru honetan, gero eta zentzu txikiagoa du barneko politiken eta kanpoko edo nazioarteko politiken arteko ohiko bereizketak. Orain arte barnekoetat hartu diren politikek gero eta proiektzio handiagoa dute kanporantz, eta alderantziz.

Aldi berean, nazioarteko eremuan, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ohiko bereizketak desagertzen ari dira poliki-poliki, zenbait kontinentetan garapen-bidean dauden potentzia berrien gero eta garrantzi handiagoaren eta orain arte garatutzat hartu diren herrialde eta lurralde batzuetako bizi-baldintzen gero eta okerragotze handiagoaren ondorioz. Gainera, eta oraindik lurralde-eremuan agertzen badira ere, garapenaren arazoak nazioz gaindiko logiken esparruan gertatzen dira sarritan, eta gobernantza globaleko logika batetik eta politiken koherentziara jotzen duen ikuspegi integralago batetik abiatuta jardun beharra dago.

Testuinguru horretan, Garapenerako Politiken Koherentziarekiko kezka hasiera batean lankidetzeta-politikei lotutako erronka gisa sortu bazen ere, erreferentzia



saihestezin bihurtu da politika publiko guztiei ekiteko. Jakin badakigu gizartearen aniztasuna eta interes eta gatazken ugaritasuna dela-eta oso zaila dela politikaren erabateko koherentzia lortzea. Hala ere, aniztasun horren onarpenean eta errespetuan oinarrituta, Garapenerako Politiken Koherentzia handiago baterantz aurrera egiteko beharra azpimarratu nahi dugu, gizarte bidezkoago, zuzenago eta jasangarriago bat lortzeko bidea baita.



GIZA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN EGUNGO ERRONKEN NORAINOKOA

Adierazitako erronkak hainbat modutara agertzen dira ekonomian, politikan, gizartean, ekologian eta kulturean. Modu horiek elkarrekin lotuta daude, eta gizakien segurtasuna eta bizitzaren jasangarritasuna bera hartzen dute eraginpean.

Eremu ekonomikoan ikus daitekeenez, gero eta kontraesan handiagoa dago hazkunde-ereduaren eta eredu horrek pertsona guztiei bizitzarako bitartekoak eskaintzeko eta bizi-maila duina bermatzeko duen ahalmenaren artean. Gero eta handiagoa den finantza-ziurgabetasunari eta lan-kolokatasunari, nolahi ere, gero eta irekiagoa eta globalizatuagoa den mundu honetan erakundeek bizitza ekonomikoa eta merkatuen funtzionamendua erregulatu eta antolatzeko duten zailtasuna gaineratu behar zaio.

Gizarte-eremuan, gero eta desberdintasun eta polarizazio handiagoko mundu batean jardun behar dugu, kohesioa ahultzen ari den eta gatazkek areagotzeko joera hartu duten mundu batean, alegia. Mundu horretan, gainera, gizarte-babesa eta lan-eskubideak atzera egiten ari dira lehiakortasunaren ikuspegi estu edo aldebakarren aldean, eta azpimarratu beharrekoak dira, halaber, genero-desberdintasun eta genero-diskriminazio etengabea eta lana eta familia uztartzeko arazoak, mehatxupean jartzen baitute bizitzaren jasangarritasuna bera.

Eremu ekologikoan, bizitzaren jarraitutasunerako beharrezkoa den baliabide-oinarria gero eta narriatuago dagoela ikus daiteke, eta epe labur, ertain eta luzerako mehatxu handiak dakartza horrek. Airearen, lurraren eta uraren kutsadurari lotutako arazoak, baso-soiltzea eta desertifikazioa, biodibertsitatearen galera, baliabide batzuen urritasuna, horien inguruko gatazkak eta klima-aldaketa seinale larriak dira, eta arriskuan jartzen dute giza bizitzaren etorkizuna bera.

Kulturaren eremuan, gizakiaren historian parekorik izan ez duen aldaketa bat gertatzen ari da; kultura-identitateak itxuragabetzen ari dira, eta prozesu kontraesankor berari jarraitzen diote. Zalantzaz betetako prozesu horretan, kultura- eta erlijio-tirabirak gero eta garrantzitsuagoak dira, eta horrek, indarkeria eta ziurgabetasuna sortzeaz gain, zaildu egiten du egungo erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren -eta balio partekatuetan oinarrituta egon behar duten- adostasunak lortzeko aukera.

Azkenik, eremu politikoan, nabaria da jendearen iritzia bideratzeko dagoen zailtasuna, erabaki-esparruak beti ez baitatoz bat arazoaren eragin-eremuarekin. Tokiko, eskualdeko zein Estatuko gobernuen ahalmena ez da nahikoa fenomeno batzuei eraginkortasunez eta zorrotzasunez aurre egiteko, eta horrek kaltetu egiten ditu ordezkartza-sistemak, eta zalantzan jartzen ditu orain arteko ekintza politikoaren oinarritzko alderdi batzuk.



POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA

Aurreko atalean deskribatutako arrisku eta mehatxuen testuingurua gorabehera, beste inoiz baino hobeto ezagutzen ditugu aurrean ditugun arazoak, eta beste inoiz baino ahalmen teknologiko handiagoa dugu arazo horiei aurre egiteko.

Azken hamarkadetan, giza bizitzari eta garapenaren etorkizunari lotutako zenbait gairi buruzko azterlan eta analisi zehatzak egin dira. Gaur egun, gero eta estatistika-sistema eta neurketa-tresna sofistikatuagoak ditugu, eta aldagaiak askotariko esparruetan nolako bilakaera eta norainokoa duten jakin dezakegu. Horren guztiaren ondorioz, herrialde ugari nazioarteko hainbat bilera eta gailurretan izenpetutako jardun-planak eta diagnostikoak landu dira, baita zenbait analisi eta proposamen ere, Estatuko edo tokiko hainbat eremutan. Dena dela, eremu politikoan dauden zailtasun eta kontraesanen ondorioz, testu horietako asko ez dira estrategia eraginkorretan gauzatu.

Politika publiko batzuek ikuspegi sektorial batetik planteatzen dituzte beren helburuak eta diseinatzen dituzte beren tresnak, gero eta espezializatuagoak diren diagnostiko batzuetan oinarritutako kontsiderazioetatik abiatuta. Errealitateak erakusten duenez, ordea, landutako planak abian jartzeko eta plan horiek eragin erreala izateko zailtasun exogenoak daude askotan, analisian kontuan hartu gabeko zenbait baldintzatzaileen ondorioz. Hori dela-eta, bereziki garrantzitsuak diren alderdi batzuen zeharkakotasuna eta gai horiek politikak lantzeko prozesuetan txertatzeko beharra hartu behar dira kontuan.

Jakin badakigu beti egongo direla helburu desberdinen arteko kontraesanak eta gatazkak ekintza politikoan, batez ere prozesu ekonomiko eta sozialak gero eta konplexuagoak diren eta elkarren artean gero eta mendekotasun handiagoa duten egungo testuinguruan, eta horrek guztiak baldintzatu eta mugatu egiten du Garapenerako Politiken Koherentziaren eremuan egiten den lana.

Hala ere, eta zeregin horrek dituen zailtasunak eta oztopoak onartuta, politika publikoen koherentzia handiago baterantz egin behar da aurrera euskal gizartearen premiei erantzungo dien eta beste herrialde eta beste lurralde batzuetako giza premiei erantzuteko aukerarekin bateragarria izango den garapen bat sustatzeko garaian.

Nazio Batuek Garapen Jasangarriaren Helburuen alde egindako adierazpenak dioenez, aurreko guztiak lortzeko beharrezkoa izango da, zalantzarik gabe, produkzioaren eta kontsumoaren egungo jarraibide eta ereduetan aldaketak sustatzea, eta horrek bizitza ekonomiko eta sozialaren alderdi asko hartuko ditu eraginpean. Hori dela-eta, itundutako ekintza politiko bat behar da, eta Garapenerako Politiken Koherentziak oso zeregin garrantzitsua beteko du ekintza horretan.



LANKIDETZA-POLITIKA ETA GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA

Arestian adierazi dugunez, Garapenerako Politiken Koherentziaren funts eta helburuetako bat garapen-prozesuak eta herrialde batzuetan eta besteetan giza premiei erantzuteko aukera bateragarri egiteko beharra da. Herrialde bakoitzaren antolamendu ekonomiko eta sozialaren errespetuan oinarrituta, lurralde batean hartzen diren erabakiek beste lurralde batek ongizate-maila handiagoetarantz aurrera egiteko dituen aukerak ez kaltetzea lortu nahi da.

Gai horren garrantziak zuzeneko zerikusia du azken hamarkada hauetan Garapenerako Laguntza Ofizialaren eraginkortasunari eta, oro har, lankidetzari buruz sortutako eztabaidekin. Eztabaida horietan egiaztatu ahal izan denez, garapenerako lankidetzaren inguruko politiken eragina mugatuta geratu da askotan, laguntza eman duten herrialdeetako jardunaren ondorioz gainera, herrialde horiek zenbait eremutan (merkataritzan, finantzetan, ingurumenean, politikan eta abar) hartu dituzten erabakiek kaltetu egin baitituzte herrialde horien lankidetzaren xede ziren herrialdeetako garapen-prozesuak. Hori dela-eta, koherentzia handiagoaren beharra aldarrikatzen ari da Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundea 90eko hamarkadaren hasieraz geroztik, Garapenerako Laguntza Ofizialaren ekarpena beste politika batzuen ondorioz alferrik gal ez dadin.

Kontsiderazio horiek herrialde guztietako garapenerako lankidetzari lotutako politiketan hartu behar dira kontuan, eta Euskadi ezin da politika horietatik kanpo geratu. Hori dela-eta, euskal erakundeek lankidetzaren arloan garatutako estrategietan –eta haien ondoriozko planetan–, gero eta neurri handiagoan txertatu behar da Garapenerako Politiken Koherentziaren ikuspegia oinarritzko erreferentzia gisa. Eta, aldi berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren berezko estrategiek eta gobernu-ekintza osoak kontuan hartu behar dute politikek beste leku batzuetako (eta, kasu honetan, lankidetzaren bideratzen den herrialde eta lurraldeetako) garapen-prozesuetan izan dezaketen eragina.

Bestalde, adierazi beharra dago garapenerako lankidetzari lotutako politiketarako planteatutako eskakizunek –genero-berdintasunari, jasangarritasunari, pertsonen eskubideekiko errespetuari eta abar egin beharreko ekarpenek– baliagarriak izan behar dutela, halaber, gizarte gisa bultzatu behar dugun garapenera bideratutako politika publikoetarako. Gure etorkizuna ezin dugu beste gizarte edo lurralde batzuetako etorkizuna kaltetuz eraiki (nahi gabe izanik ere), eta gure lankidetzaren edo laguntza ezin dugu planteatu gure gizarteari eskatzen ez diogun erreferentzia batzuen babesean oinarrituta.



Gainera, duela gutxi arte pentsatu izan da garapenari lotutako gaiek laguntza behar zuten herrialde jakin batzuk baino ez zituztela eraginpean hartzen, beste herrialde batzuk dagoeneko garatuta zeudelakoan. Gaur egun, ordea, adostasun akademiko, sozial eta politiko handia dago garapen-prozesuak itzulgarriak direla eta orain arte garatutzat hartutako herrialde batzuetan arazo handiak daudela (ingurumenari, gizarte-eremuari, generoari eta abarri lotutakoak) adieraztean. Hori dela-eta, ohiko laguntza-politikak gaindituko dituen askoz dimentsio zabalago batetik abiatuta landu behar da garapenerako lankidetzak. Dimentsio horren barruan, Garapenerako Politiken Koherentziak funtsezko zeregina bete behar du, eta Jaurlaritzak bultzatu edo sustatutako estrategien arteko sinergiak bultzatu behar ditu.



GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA ETA EUSKO JAURLARITZAREN KANPOKO EKINTZA

Jaurlaritzaren kanpoko ekintzari dagokionez, ekintza osoak hartu behar du kontuan Garapenerako Politiken Koherentziaren ikuspegia, garapenerako lankidetzari lotutako strategiara edo planetara mugatu gabe. Hori bat dator Europar Batasunean bertan dauden kezkekin. Izan ere, 1992an sinatutako Maastrichteko Itunean adierazten zenez, *“Europar Batasunak kanpo-arazoetako politiken, segurtasun-politiken, politika ekonomikoen eta garapen-politiken esparruan ziurtatu behar du garatzen duen kanpoko jarduera osoaren koherentzia”*.

Garapenerako Politiken Koherentziak kanpoko ekintza osoan duen garrantziak zerikusia du, gainera, politika publikoak kontuan hartu gabe (politika publikoen aurka ez esatearren) egin den globalizazio-prozesuaren ondoriozko arazoekin. Horren guztiaren ondorioz, nazioarteko lankidetzeta-mekanismoak gero eta ahulagoak dira eremu askotan, Nazio Batuen sistemako erakundeak ahultzen ari dira pixkanaka, eta zailtasun handiagoak daude arazoei eman beharreko konponbideak adosteko.

Politika publikoetan eta lankidetzaguneetan izandako atzerapenak indartu egin ditu, gainera, nazioartean eragin negatiboa duten joera batzuk, hala nola lehiakortasuna balio absolutu gisa babestea, nozio horren edukia zehaztu eta argitu gabe, eta beste balio batzuekin (lankidetzarekin edo elkartasunarekin, adibidez) duen lotura azaldu gabe. Ikuspegi horretatik, gure ustez beharrezkoa da sustatu nahi den ereduaren ezaugarri bereizgarria den efizientzia sozial eta ekologikoaren babesean oinarritutako lehiakortasun bat sustatzea, zenbaitetan eskubideen murrizketan, pertsonen kolokatasun edo ziurgabetasunean edota baliabide naturalen suntsiketan oinarrituta dagoen merkatu-norgehiagokatzat hartu ordez.

Ikuspegi horretatik, beraz, Basque Country Estrategiak eta Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ekintza osoak Euskadin ekonomia globala behar bezala txertatzeko aukera eta pertsonen eskubideetan eta baliabideak etorkizuneko belaunaldientzat gordetzean oinarritutako bizikidetzeta-esparru baten babesa sustatu behar dituzte aldi berean. Eta horretarako, berriz ere, Garapenerako Politiken Koherentzia kezka guztien erdigunean kokatu behar da politikak lantzeko garaian.

Esparru horretan, sektore pribatuarekiko elkarrizketa ere sustatu behar dute erakunde publikoek, euskal enpresen nazioartekotze-estrategiek giza garapenaren eta jasangarritasunaren eskakizunak beren gain har ditzaten. Ildo horretan, enpresak babesteko beharrezkoak diren erreferentzia gisa planteatu behar dituzte printzipio horiek.



BALIO-PRESTAKUNTZA, HEZKUNTZA-POLITIKA ETA GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA

Eusko Jaurlaritzaren ustez, giza garapenaren eta jasangarritasunaren sustapena –barne-mailan zein nazioartean– hezkuntza eremura eta belaunaldi berriak hainbat baliotan (hala nola elkartasunean, gizarte-justizia sinkroniko eta diakronikoan –hau da, gaur egun eta oraindik jaio ez direnekin– eta giza eskubideekiko errespetuan) prestatzera proiektatu behar da.

Erakundeek erantzukizun garrantzitsua dute adierazitako helburuak lortzera bideratutako politikak sustatzeko garaian, baina baliorik gabeko gizarte batean politikak porrot egin dezake ezinbestez pertsonen prestakuntzaren lehen etapetan hartu behar den konpromiso sendorik ez badago.

Hasiera batean, gizarteak –euskal gizarteak kasu honetan– pobrezia orokorrari, indarkeriari edo pertsonentzako aukera-gabeziari lotutako arazoak dituzten beste gizarte batzuen arazoengatik inguruan sentsibilizatzeko tresna gisa sortu zen Garapenerako Hezkuntza. Horren bidez, eta besteen arazoak hobeto ezagutzuz eta ulertuz, gure gizarteak garapenerako lankidetzaren inguruko politikari atxikitzea lortu nahi zen.

Gaur egun, berriz, herritarrek guztion arazoak hobeto ulertzea lortu behar da, gure gizartearen beraren arazoak barnean hartuta, gizartean dauden gorabeherak zerikusia baitute dinamika eta fenomeno globalekin. Eta esparru berri horretan, hezkuntza-sistemaren zeregina oso garrantzitsua da garapenari lotutako arazoez jabetuago egongo den eta, beraz, arazo globalen aurrean arduraz jokatu ahal izango duen eta politika publikoetan beharrezkoak diren aldaketak bultzatuko dituen biztanleria bat osatzeko garaian. Egungo zirkunstantzietan, ez dago Garapenerako Politiken Koherentziarantz aurrera egiterik hezkuntza-politikak kontuan hartu gabe, are gehiago Euskadiko egoeran, ardura eta eskumen garrantzitsuak baititu arlo horretan.

Hori guztia dela-eta, gure ustez oso garrantzitsua da giza garapen jasangarri eta zuzenaren ereduaren oinarri diren printzipioak hezkuntza-sistemaren maila guztietan zabaltzea eta euskal curriculumak belaunaldi berrien prestakuntza kosmopolita bultzatzea, munduak gaur egun dituen arazoak hobeto interpretatzeko eta Euskadiko zein munduko gainerako lekuetako pertsonen ongizatea eta duintasuna lortzeko erronkei arduraz eta elkartasunez ekiteko.



GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA, GOBERNU-EKINTZA ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren ustez, Garapenerako Politiken Koherentzia handiago baterantz aurrera egiteko, beharrezkoa da, lortu nahi diren helburuak eta haiek lortzeko tresnak zehazteaz gain, haien guztien artean sortzen diren sinergiak eta osagarritasun-loturak bultzatzea. Hala ere, Garapenerako Politiken Koherentzia gobernatzeko moduaren araberakoa da, eta horrek zerikusia du egiturekin, gobernu-kulturarekin, funtzionarioen prestakuntzarekin eta beste alderdi administratibo eta politiko batzuekin.

Gai askori buruzko jakintza espezializatuaren eta askotariko arazoak konpontzera bideratutako politiken beharra duen gero eta mundu konplexuago batean bizi gara, baina mundu horretan, aldi berean, elkarren arteko mendekotasuna gero eta handiagoa da, eta proposamenak eta alternatibak ezin dira planteatu beste eremu batzuetan dituzten ondorioak kontuan hartu gabe. Horrek zailtasun erantsi bat dakar gobernu-ekintzarako, eta dauden problematikei buruzko jakintza espezializatua problematika horien zeharkako tratamenduarekin uztartu behar da ezinbestez.

Jabetuta gaude, nolana ere, zeharkako gai batzuk gobernu-ekintzan txertatzeko dauden zailtasunez. Edonola ere, politikak zatitzeko joerak gainditu behar dira. Horretarako, gure ustez beharrezkoa da sailen arteko batzordeen eraginkortasunean aurrera egitea. Hori lagungarria izango da, zalantzarik gabe, politika sektorial batzuen eta besteen artean eta politika horien guztien eta giza garapenerako eta jasangarritasunerako aurrerapenaren oinarri diren printzipioen artean koherentzia handiagoa lortzeko.

Sailen arteko eta sektoreen arteko elkarrizketaz gain, administrazioen arteko koordinazioaren eremuan ahalegin gehigarri bat egitea eskatzen du Euskadiko erakunde-egitura bereziak. Ildo horretan, Garapenerako Politiken Koherentziak dimentsio hori ere kontuan hartu behar du, eta elkarrizketa eta lankidetzak bultzatu behar du helburu komunak zehazteko edo alderdi batzuen inguruko esparru politiko orokorrak lantzeko garaian. Horretarako, EAEko administrazioek aurrera egin beharko dute alderdi espezifiko batzuetan, hala nola diagnostikoak partekatzean, informazio-sistemak harmonizatzean edota koordinazio-eremu eraginkorragoak bultzatzean.

Halaber, Garapenerako Politiken Koherentziaren aldeko gobernu-kultura bat lortzeko, problematika horretaz jabetuta dauden eta gobernantza globalari eta garapenaren erronkei lotutako alderdi bereziki garrantzitsu batzuetan prestatuta dauden pertsonak behar dira. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAP) jarraikiz, giza garapenaren eta jasangarritasunaren erronkei lotutako arlo batzuetan euskal funtzionarioen etengabeko prestakuntza bultzatuko duten neurri batzuk hartuko ditu Eusko Jaurlaritzak.



ONDORIOA

Garapen humanoago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko politiken koherentzia erronka handia da gobernu eta administrazio guztientzat, eta Eusko Jaurlaritza ezin da kanpoan geratu. Jakin badakigu lan-ikuspegi hori hartzeak zailtasun handiak dakartzala, baina gure ustez ikuspegi hori ezinbestekoa da gure arazoak hobeto ulertzeko eta gure erantzukizunak zentzu handiagoarekin betetzeko.

Hori dela-eta, erreferentzia-esparru gisa hemen planteatu ditugun kontsiderazioak hartuko dituen gobernu-ekintza bat sustatzeko konpromisoa hartu du Eusko Jaurlaritzak gizartearen aurrean. Ildo horretan, Garapenerako Politiken Koherentzia politika publikoak sortzeko printzipioa ez ezik, barne-eremuan zein nazioartean egungo erronkei baldintza hobetan aurre egiteko formula eraginkor bat ere izateko beharrezkoak diren aldaketak proposatuko ditu.

